

IRABAZI ITURRIAK:

Proiektu hau aurrera eramateko, diru- iturri handia eduki beharko genuke, eta halako kapitala biltzeko akzionista edo mailegu handiren bat beharko genuke, geure proiektuaren funtsezko baliabideak zerrendatu hutsarekin ikusten den bezala. Baina hori geure egoeran nahiko zaila da, ezinezkoa ez bada. Izan ere, batetik ikasleak gara eta ez dugu diru-iturri propiorik, eta bestetik, lan-munduan oraindik ez dugu esperientziarik.

Arazo honi irtenbidea emateko bururatu zaizkigun proposamenak (enpresa horien produktuak geure kontura saltzea (trenak ?, turbinak?), ezinezkoak gertatzen dira errealitatean. Ez gero ikusiko dugun bezala kanal zuzenen bidez eta ez eta zeharkako kanal bidez.

Beraz, iruditu zaigu lehen-lehenik enpresa horien konfiantza irabazi behar dugula, eta horretarako egokiena beraien negozioa ezagutzeko bertan bekari-gisara edo lan egitea proposa genezakeela, baina geure lan-talde propioa osatzeko aukerarekin, hartara, geure proiektuaz gertuagotik hausnartzeko.

Gure lehen proposamena hauxe izango litzateke: Guk proiektu hau ahalbideratuko lukeen enpresaren bati aurkeztu eta proposamena emango genioke, beraiei gustatu edo ontzat jo ezkeru guregan konfiantza jarri eta guk beraiek ekoizten dituzten produktuen ezaugarriak eta materialak ondo aztertu ahal izateko.

Orain gauden bezala oso zaila da konfiantza edukitzea, beraz, horrelako proiektu bat aurrera eramateko, beraientzat kosturik izan gabe laguntasuna emateko moduko ekintzak proposatuko genizkieke, adibidez, beraiek erabili behar ez dituzten piezak geuk erabiliz prototipoak egitea.

Eta horrekin aski ez balitz, proposa genezake adibidez, Guretzako diru- iturria lortzeko modu errazena beraien konfiantza irabaztea denez, beraien produktuez (trenaz edo energia erabilgarriaz) gazteen artean interesa pizteko eta gazteek bidaiatzeko eta bere bizimodurako produktu horiek erosteko, beste publizitate modua aurkitzen saiatuko ginanteke, gazteen artean trenaren eta energia berrerabilgarriaren aldeko kontzientzia piztuz .